

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Botoak irabazi arren hiru diputatu baino ez ditu lortu EAJk Bizkaian

Bizkaiko bederatzi diputatuetatik bost PSOE eta PPkoak izango dira

PSOE, PP eta IUk boto gorakada nabarmena izan dute Bizkaian, Bilbo eta Ibar Ezkerrean batipat. Bototan erdia baino gutxiago izan arren, bederatzitik bost diputatu lortu dituzte. EAJ eta HBk diputatu bana galdu dute eta horiek PSOE eta PPren eskuetara joan dira. EAJk ez du lortu espero zitekeen gorakada.

I. URIARTE / BILBO




Estatu osoan hedapena daukaten alderdiek izan zuten hazkuntza handiena igandeko hauteskundeetan. Azken hauteskunde orokorrekin konparatuz gero, PSOEek 32.000 gehiago lortu ditu Bizkaian; PPk 100.000ko listoa gainditu du; Izquierda Unidak, berriz, duela lau urteko emaitzak bikoiztu egin ditu. Gorakada nabarmenena Bilbo eta Ibar Ezkerrean izan dute.

Alderdi abertzaleei dagokienez, EAJk 25.173ko igoera izan du bototan 1989ko datuekin alderatuz gero, baina inkestek behin eta berriz iragarri zieten laugarren diputatua lortu gabe. Azken hauteskundeekin konparatuz gero —Batzar Nagusietarako egindakoekin— jeltzaleen igoera hiru mila botokoa besterik ez da izan.

EA-EUEk ez du lortu Bizkaiko EEren hauteslegoa eskuratzea, eta boto galera txikia izan arren Joseba Azkarraga Espainiako Parlamentutik at geratuko da. Diputatuen Kongresuan hamar urte eman ondoren aurtengo

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

BIZKAIA



1989 hautes. orokorrak

1991 hautes. foralak

1993 hautes. orokorrak

BOTOAK

%

DIP.

BOTOAK

%

BOTOAK

%

DIP.

EAJ

171.582

28,10

3

193.662

35,82

196.758

29,30

3

PSE-EE

127.744

20,92

2

113.461

20,98

164.966

24,56

3

HB

92.493

15,15

2

83.222

15,39

83.316

12,41

1

EA-EUE

48.355

7,92

1

42.971

7,95

42.336

6,30

-

EE

48.559

7,95

1

35.491

6,56

-

-

-

PP

59.632

9,77

1

47.706

8,82

101.947

15,18

2

IU

22.169

3,63

-

13.061

2,44

45.792

6,9

-

Abst.

%32,71

%41,68

%28,40

J. APEZTEGIA

✓ EA-EUEk ez du lortu Bizkaiko EEren hauteslegoa eskuratzea, eta boto galera txikia izan arren Joseba Azkarraga Espainiako Parlamentutik at geratuko da.

hutsuneetako bat izango da.

Herri Batasunak bederatzi mila boto galdu ditu 1989ko hauteskundeekin erkatuz gero, baina jaitsiera hori igoera txikia bilakutzen da azken hauteskundeetako emaitzen aldean. Edonola ere di-

putatu bakarria izango du Bizkaian HBk. Jone Goirizelaiak ez du bigarren aulkia beteko oraingoan.

Senaturako ez da ustekaberik izan. EAJk hiru senadore izango ditu eta PSOEek laugarrena.

PP-K BOTOAK BIKOIZTU

PP eta PSOEek behin eta berriz aldarrikatu duten mezua —gobernua dagoena Espainiako gobernu dela alegia— hauteslegoan sakon errotu dela dirudi. Jeltzaleen boto igoeraz kanpo, gainontzeko igoera guztiak Espainia osoan antolaketa daukaten alderdien gorakada izan da gauzarik deigarriena.

PSOEek 1989tik hona 32.740 boto igoz, hirugarren diputatua lortu du. PPk eskuraturiko 101.947 bozei esker 42.000 bo-

totan gailendu du 1989ko emaitza. Azken hauteskundeekin konparatuz gero, PPk bikoiztu egiten ditu botoak.

Gauza bera esan daiteke Izquierda Unidaz. Diputatutik lortu ez arren IUk 46.914 boto atera ditu, aurrekoan baino 24.745 boto gehiago.

PP eta PSOEren artean Espainiko nagusigoa eskuratzeko lehia bortitzak hautesleak botoa ematera eraman ditu. Aznar eta Gonzalezen arteko kanpainaren pertsonalizazioak, eta hamarkada bat iragan eta gero Madrileko Gobernua aldatzeko edo bere horretan iraunarazteko aukerak jendea hauteskontzietara hurbildu du.

ABSTENTZIOA EMAITZEN GILTZA

1989an

% 32,71ko abstentzioa lau

puntutan murriztu da. Abstentzioaren gutxitze hori are nabarmenagoa da 1991ko hauteskundeekin erkatuz gero, % 41,68 orduan, eta % 28,39 oraingoetan.

Ondorioak aztertzeke orduan beste gauza bat ere kontuan hartu behar da, diputatu kopurua alegia. Biztanlegoaren murrizketak parlamentari bana galtzea ekarri die Bizkaia eta Gipuzkoari. Gure kasuan, Bizkaia Madrilerako hamar diputatu izan ondoren bederatzi dauzka azkenotan.

Bazen, bestalde, alderdi bat gutxiago ere. Euskadiko Ezkerrearen botoak hartuko zuen norabideak, PSE-EE eta EA-EUEren ahaleginak ekarri ditu. Emaitzak ikusita, orain arte PSOEek indar murrizta zeukan herrietan batipat, boto horren gehiengo Gonzalezen alderdira joan dela erakusten dute zenbakiek.

Hiru elementu hauek —abstentzioa, diputatu bat galtzea eta Euskadiko Ezkerrearen botoa— irakurketa askotarako bidea eman dute. Are gehiago konparaketa hauteskunde orokorrekin ezezik 1991koekin ere —Batzar Nagusietarako— egiten bada. Gora-beherak interpretazio anitzetarako, edo alderdien kontsolamendurako nahi bada, izan daitezke.


BIZKAIA

DIPUTATUAK

Iñaki Anasagasti	(EAJ)
R. Gatzagaetxeberria	(EAJ)
Jon Zabalia	(EAJ)
Jose Maria Benegas	(PSE-EE)
Nicolas Redondo	(PSE-EE)
J.L. Marcos Merino	(PSE-EE)
Javier Peon	(PP)
Antonio Merino	(PP)
Jon Idigoras	(HB)

SENADOREAK

Pedro Caballero	(EAJ)	193.465
Jon Gangoiti	(EAJ)	191.015
Ricardo Sanz	(EAJ)	188.833
Ramón Rubial	(PSE-EE)	161.900



EAJ nagusi da Bizkaian baina PSE-EE hurbildu zaio.

SIMAL

Botoak eta eskainuak

I. U. / BILBO

■ Azken hauteskundeetan abstentitzen zirenen artean PPren eta PSOEren boto galdu asko zegoe la ikusi da. Abstentzioan eraginez, eta gainontzeko alderdietan aldaketa handirik sortu gabe, gehiengoak mugitzea lortu dute Gonzalez eta Aznarrek.

Boto kopuruan ez bada ere, PSOE-PP-IU Bizkaiko gehiengo berria bilakatu da diputatuei dagokienez. 313.827 botoz bost diputatu izango dute. Euskal Herrira mugatzen diren alderdiek,

322.410 botoz, hiru diputatu jeltzale eta HBko bat besterik ez dute izango. EA-EUE jokoz kanpo geratu da oraingoan.

PSOEek zein PPk kanpainan zehar behin eta berriz esan dutena —hauteskunde hauetan ebazten zena Espainiako gobernu zela eta ez beste ezer— sakon errotu dela dirudi. Aldaketa edo iraunkortasuna, Aznar edo Felipe, izan da gehien eztabaidatu dena, egitarau politikoak baino gehiago.

Zalantza barik alderdi abertzaleek, hau da EAJ, EA, eta HBk ikasbidea atera beharko dute.